Baldintza teknikoak

1.- KONTRATUAREN XEDEA	**1.- OBJETO DEL CONTRATO**
Euskara ikasten ari direnei nahiz ikasi eta hitz egiteko aukera gutxi dutenei euskaraz hitz egiteko espazioa eskaintzea.	Ofrecer espacios para hablar en euskera a aquellas personas que están aprendiendo esta lengua o a las que no tienen dónde y cómo practicarla.
2.- ZERBITZUAREN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK **Helburua:** Udalak euskararen erabilera Andoainen bultzatzea du helburua, kalean euskaraz egiteko espazioak sortzea, talde txikietan antolatuta, herrian zehar euskaraz aritzeko aukerak ematea. Horretaz gain, urtean zehar Mintzalagun kideei bereziki, baina euskaldun guztientzako ere zuzenduriko lantegiak eta festak antolatuko dira. Lantegi horiek antolatzeko, batez ere, hurbileko elkarte eta herritarrez baliatuko da, horien beste helburua baita herriko eta eskualdeko euskaldunak saretzea. Bidelagunak eta bidelariak izango dira *Andoaingo Mintzalaguna* ekimeneko parte hartzaileak. **Bidelariak** dira euskaraz hitz egiteko premia dutenak. Beraiek dira Mintzalaguna proiektuko bezero eta protagonista nagusiak. **Bidelagunak** dira, berriz, euskaraz normaltasunez hitz egiteko gai izanik, Mintzalaguneko taldeetako solasaldiak euskaraz egiteko bidelariei laguntza eta babesa ematen dietenak. Boluntarioak dira bidelagunak, eta bidelariei doan ematen zaien zerbitzua da Mintzalagunarena.	**2.- OBJETIVOS Y CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO** **Objetivo:** El objetivo es impulsar el uso del euskera en Andoain, crear espacios para emplear el euskera en la calle, espacios organizados en pequeños grupos, que den oportunidades para que se pueda hablar en euskera por el pueblo. Además, a lo largo del año se organizarán talleres y fiestas dirigidas especialmente a las personas participantes en Mintzalagun, pero también para todas las vascoparlantes. La organización de estos talleres se realizará principalmente a través de asociaciones y personas del municipios, ya que otro objetivo es crear una red entre de las personas vascoparlantes del pueblo y las de la comarca. Bidelagun y bidelari se denomina a las personas participantes en la iniciativa Mintzalaguna. Las bidelari son las que necesitan hablar en euskera, las principales clientes y protagonistas del proyecto. Las bidelagun, por otra parte, son aquellas que hablan euskera con normalidad y prestan su ayuda a las bidelari para que practiquen. Todas las personas bidelagun son voluntarias y el servicio de Mintzalaguna es gratuito.
Egitekoen zehaztapenak: Mintzalaguna egitasmoa irailaren 15etik ekainaren 30 arte gauzatuko da eta enpresa esleipendunak honako lanak egin beharko ditu: • Mintzalaguna egitasmora jendeak izena emateko deialdia egitea eta izen-ematearen kudeaketa. • Bidelagunak bilatzea. • Bidelagun eta bidelariez osatutako taldetxoak antolatzea, talde horietako dinamika bizia izan dadin laguntza eta aholkuak emateaz. • Mintzalagun taldeak definitzea eta egituratzea (talde txikiak, gutxienez 3 eta gehienez 5 lagunekoak).	**Especificaciones del servicio:** El programa Mintzalaguna se desarrolla del 15 de septiembre al 30 de junio, y la empresa adjudicataria tendrá las siguientes funciones: • Llevar a cabo la convocatoria del programa asi como la gestión de las inscripciones. • Buscar las personas que cumplan la función de bidelagun. • Organizar los grupos con personas bidelagun y bidelari, así como colaborar y dar asistencia en la dinámica de esos grupos. • Definir y dar forma a los grupos de Mintzalagun (grupos pequeños, de un mínimo de 3 y un máximo de 5 personas).

ESKU1a8b5862-a541-4ffa-8d40-485929cd0a79

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

• Ikasturtearen hasierako eta bukaerako ekimen bana antolatzea Mintzalaguna egitasmoan parte hartu dutenentzat eta egitasmoaren berri emateko herrian. • Urritik ekain bitartean euskara hutsezko 6-8 lantegi antolatzea. • Herriko euskaltegiarekin eta beste hainbat elkarte eta herritarrekin koordinatzea. • Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinazio zuzena. Horretarako ikasturtean, gutxienez, 3 bilera egingo ditu zerbitzua zuzenean ematen duen pertsonak Euskara Zerbitzuarekin. • Ekimenen komunikazioa modu egokian egingo da, izan paperean nahiz sare sozialen bidez.	• Organizar al inicio y al fina de cada campaña una actividad para todas las personas que toman parte en el programa y para informar a la ciudadanía sobre ella. • Organizar 6-8 talleres desde octubre a junio exclusivamente en euskera. • Coordinar la actividad con el euskaltegi del municipio y con otras asociaciones y particulares. • Coordinación con el Servicio de Euskera, para lo que se llevarán a cabo3 reuniones, por lo menos, con la persona que gestiona directamente el programa. • La comunicación de las actividades se llevará a cabo tanto por medios físicos como a través de las redes sociales.
Lantegien ezaugarriak: • Urritik ekainera bitartean 6-8 lantegi antolatuko dira. • Lantegi irekiak izango dira, ez bakarrik Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen dutenentzat. • Doakoak izango dira. • Lantegi guztietan Mintzalaguna egitasmoaren informazioa luzatuko da. • 6-8 lantegi horietatik lau, gutxienez, Andoaingo, Buruntzaldeko ala Aiztondoko elkarte edo herritarrekin antolatuko da.	**Características de los talleres:** • Se organizarán 6-8 talleres desde octubre hasta junio. • Los talleres estarán abiertos a la ciudadanía, no serán solo para las personas que toman parte en Mintzalagun. • Serán gratuitos. • En todos los talleres se ofrecerá información sobre el programa Mintzalagun. • De los citados 6-8 talleres, al menos cuatro, se organizarán con las asociaciones y particulares de Andoain, Buruntzaldea o Aiztondo.
Betebeharrak: • Hizkuntzen erabilera ez-sexista egingo da ahoz nahiz idatziz emandako mezuetan. • Erabiltzaileen inguruan jasotzen diren datu guztiak sexu aldagaia kontuan hartuz jaso beharko dira. • Ekimenaren garapenean, edota momentu zehatz batzuetan, emakumeek euskararen transmisioan izan duten eta duten garrantzia azpimarratu eta ikusaraziko da. • Kontziliazioa bultzatzea, horretarako ordutegiak generoaren arabera aztertzea eta zailtasunak identifikatzea. • Laneko istripuei, laneko segurtasun-neurriei eta Gizarte Segurantzari buruzko guztia esleipen-hartzailearen ardura izango da. • Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da. • Enpresariak zerbitzua emateko jarduerek eragindako kalte eta galerak ordaindu beharra dauka. • Kontratistak honako ardurak ditu: emandako zerbitzu kalitatezkoa izatea, kontratua	**Obligaciones:** • Se hará un uso no sexista de las lenguas en los mensajes emitidos tanto oralmente como por escrito. • Todos los datos que se recojan sobre las personas usuarias deberán recogerse teniendo en cuenta la variable sexo. • En el desarrollo de la iniciativa o en momentos puntuales destacar y visibilizar la importancia de las mujeres en la transmisión del euskera • Favorecer la conciliación analizando los horarios en función del género e identificando las dificultades. • Todo lo relativo a accidentes de trabajo, medidas de seguridad laboral y Seguridad Social será responsabilidad de la persona o empresa adjudicataria. • El contrato se ejecutará a riesgo y ventura del contratista. • El empresario está obligado a indemnizar los daños y perjuicios causados por las actividades de prestación del servicio. • La persona o empresa contratista es responsable

ESKU1a8b5862-a541-4ffa-8d40-485929cd0a79

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

gauzatzean, eginbeharren bat ez egiteak, hutsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Udalari zein besteri eragin diezazkieketen ondorioengatik erantzutea. Kontratistak kasu bakar batean ez du erantzun beharrik izango: akatsak Udalak emandako aginduen edo ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean. • Komunikaziorako erabiltzen den edozein euskarritan Andoaingo Udalak antolatutako egitasmoa dela adieraziko da, kasu bakoitzerako Udalak adierazten duen moduan (logoak, testuak, leloak…). • Ikasturtearen amaieran balantze ekonomikoa eta memoria aurkeztea Udaletxean. • Esleipendunak, lansari osagarririk jasotzeko eskubiderik ez duela, kontratua ongi garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, lan edo informazio bileretara joatea. Betebehar hori izango du berme epea bukatu arte.	de que el servicio prestado sea de calidad, que en la ejecución del contrato responda de las consecuencias que para el Ayuntamiento o para otros puedan derivarse de la omisión de un deber, de los errores, de los métodos inadecuados o de las consecuencias erróneas. La persona o empresa contratista no estará obligada a responder cuando los defectos sean consecuencia directa de las órdenes o condiciones dictadas por el Ayuntamiento. • En cualquier soporte que se utilice para la comunicación se indicará que se trata de un proyecto organizado por el Ayuntamiento de Andoain, tal y como indica el Ayuntamiento para cada caso (logos, textos, lemas...). • Presentación del balance económico y de la memoria al final del curso en el Ayuntamiento. • La persona o empresa adjudicataria deberá prestar los servicios que se consideren necesarios para el buen desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como la asistencia a reuniones de trabajo o de información, sin derecho a percibir retribuciones complementarias. Esta obligación estará garantizada hasta la finalización del plazo de garantía.
3.- ZERBITZUA BIDERATZEN DUEN LANGILEAREN EZAUGARRIAK Zerbitzua zuzenean emateaz arduratzen den pertsona Arteak eta Giza Zientzietako edo Gizarte eta Lege Zientzietako erdi edo goi mailako unibertsitate ikasketak izan behar ditu eta trebea antolaketa eta talde dinamizazio lanetan. Euskararen gaitasunari dagokionez, C1 maila egiaztatu behar du legeriaren arabera onarturiko egiaztapen-agiri bidez.	**3.- CARACTERÍSTICAS DE LAS PERSONAS QUE PRESTAN EL SERVICIO** La persona responsable de la prestación directa del servicio debe tener estudios universitarios medios o superiores en las ramas de Artes y Humanidades o Ciencias Sociales y Jurídicas, y debe ser competente en tareas organizativas y de dinamización grupal. En cuanto a la competencia en euskera, debe acreditar el nivel C1 mediante acreditación reconocida conforme a la legislación.
4.- IDATZIZKO MATERIALEN EZAUGARRIAK Kontratuaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute (zerbitzuaren jardueraren gaia, xede taldea). Herritarrentzako prestatzen diren iragarkiak, eskuorriak eta testua duten euskarriak euskaraz egongo dira. Egitasmoa eta lantegiak iragartzeko erabiltzen diren irudiak eta erabiltzen den hizkera ez-sexistak izango dira.	**4.- CARACTERÍSTICAS DE LOS MATERIALES ESCRITOS** Las tareas que constituyen objeto del contrato exigen que el contrato se realice en euskera (el objeto del contrato, el grupo al que va dirigido). Los anuncios, folletos y soportes con texto que se preparen para la ciudadanía estarán en euskera. Las imágenes que se utilizan para el anuncio de las sesiones y los juegos y el lenguaje que se utilizan serán no sexistas.

ESKU1a8b5862-a541-4ffa-8d40-485929cd0a79

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

5.- DATUEN BABESA Tratamenduaren arduradunek, nahitaez bete behar dituzten legezko betebeharrez, lanbide betebeharraz eta betebehar deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko dute kontratu honek arautzen duen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta toki erakundearekin dituzten harremanak bukatu ondoren ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunen eginkizuna izango da behar diren neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez dadin. Tratamenduaren arduradunek ez badituzte betetzen kontratu honetako estipulazioak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez-betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik: a) Tratamenduaren arduradunek datu pertsonalak erabiltzen badituzte alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu betarako. b) Tratamenduaren arduradunek hausten badute datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonei ez komunikatzeko betebeharra. **c)** Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen baditu kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz. Goian adierazitako arau-hausteak egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduradunak tratamendu kontrolatzailetzat joko dira, eta erantzun. beharko dizkiete berak egindako arauhausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkez ditzaketen erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen zaizkien kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla-eta erantzukizun-egintzez baliatzen badira. Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunek erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli beharko zaizkio, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dauzkan edozein euskarri edo dokumenturekin batera.	**5.- PROTECCIÓN DE DATOS** Las personas encargadas del tratamiento, sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones legales, profesionales o deontológicas que le sean de aplicación, se obliga a guardar secreto profesional respecto de los datos de carácter personal cuyo acceso se regula por el presente contrato, obligación que subsistirá aun después de finalizar sus relaciones con la entidad local. Las personas encargadas del tratamiento estén obligadas a implantar las medidas técnicas y organizativas necesarias que garanticen la seguridad e integridad de los datos de carácter personal y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado. La entidad local queda exonerada de cualquier responsabilidad que se pudiera generar por el incumplimiento por parte de las personas encargadas de tratamiento de las estipulaciones del presente contrato y en concreto: a) En el supuesto de que las personas encargadas del tratamiento utilicen o destinen los datos de carácter personal para cualquier otro fin distinto de aquel pactado y aceptado por ambas partes. b) Por la vulneración por parte de dichas personas encargadas del deber que les incumben de guardar secreto sobre los mismos, y de no comunicarlos a terceras personas. c) Por utilizar los datos incumpliendo, en cualquier modo, las estipulaciones del presente contrato. En todos estos supuestos, y en general por incumplimiento de cualquiera de los pactos del presente acuerdo, las personas encargadas del tratamiento serán consideradas responsable del tratamiento, respondiendo de las infracciones en que hubieran incurrido, así como de cualquier reclamación que por la persona interesada se interponga ante la Agencia Vasca de Protección de Datos y de indemnización que, en su caso, se reconozca a la persona afectada que ejercite la acción de responsabilidad por el daño o lesión que sufra en sus bienes o derechos. Una vez finalizada legalmente la relación contractual, los datos de carácter personal utilizados por las personas encargadas del tratamiento deberán ser destruidos o devueltos a la persona responsable el mismo, junto con cualquier soporte o documento en que conste algún dato de carácter personal objeto de tratamiento.

ESKU1a8b5862-a541-4ffa-8d40-485929cd0a79

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Andoainen, sinadura datan

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Administratibo Berezien agiri hau **Tokiko Gobernu Batzarrak** onartu duela, Alkatetzak eskuordeturik, **2024/06/14ean** egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

Diligencia: Que la extiendo yo, el Secretario de la Corporación, para hacer constar que el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares ha sido aprobado mediante acuerdo de **la Junta de Gobierno Local** delegación de Alcaldía, de fecha **14/06/2024**.

Idazkaria / El Secretario

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

EKS | CSV: **ESKU1a8b5862-a541-4ffa-8d40-485929cd0a79**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910